

## **AUSARDIAREN GARAIA, EKOSOZIALISMO-FEMINISTAREN BIDETIK.**

**COVID-19.** Txinako madarikazio batek zera dio: "Garai interesgarrietan bizi zaitezten". Une historiko batean gaudela esan dezakegu, argi eta garbi. Kontuan hartzen badugu pandemia hau kontinente guztietan gertatzen ari dela, gaur egungo belaunaldiek ez dute antzeko ezer bizi izan inoiz. Zaila, oso zaila izango da ezer gertatu ez balitz bezala segitzea, funtsezko aldaketarik egin gabe jarraitzea.

Aldiz, aldaketa horien norabidea ez dago aldez aurretik idatzita. Kezka handia sortzeko modukoak dira ikusten ari garen autoritarismo, militarismo, kontrol sozial eta birzentralizazioaren seinaleak. Izan ere, ez da gehiegizkoa esatea osasun krisi honen amaieran arrisku larria dagoela "kit autoritario" hori erabiltzeko "*shock doktrina*" martxan jartze aldera, beti bezala eliteen mesedetan.

Horregatik guztiagatik, premiazkoa da "*beste mundu posible baten*" alde lan egiten dugun guztion artean lankidetzan aritzeko gai izatea, Industria-korporazioak eta haren bazkide politiko eta mediatikoak sustatzen ari diren norabide horren aurrean bizitza duinaren aldeko alternatiba diseinatzeko. Ez da "*epelkerietan*" ibiltzeko garaia, ausartak izan behar dugu bai gure planteamenduetan, bai gure ikuspuntuak eta proposamenak partekatzeko, baita elkarrekin jarduteko orduan ere.

**Bizitzaren aldeko sarea.** Krisi honen osteko neurriak, berriro ere eliteen mesedetan hartu ez daitezten adibidez aurreko 2008koan bezala, eta jarrai ez diezaiogun amildegira garamatzan hazkunde itsuaren, bizitzaren eta naturaren alor guztien merkantilizazioari, eta kolapsoa dakarkigun neurri gabeko produkzio eta kontsumoari, Euskal Herrian eredu alternatiboa defendatzen dugunok, elkartu, antolatu eta, agian urratsak eman ditzakegu, Bizitzaren aldeko sare bateratu bat eratzeko, nahiz konfinamenduan egon. Sarea, martxan dauden ekimen eta plataforma desberdinak konektatzeko, eta, ahal dela, norabide berean lerratzeko. Bizitza, duintasuna, justizia eta Lurra planetaren aldeko sarea.

**Urgentziazko neurriak.** Bide horretan, jada, hainbat ekimen plazaratzen ari dira egungo osasun larrialdia erantzuteko behar beharrezkoak diren urgentziazko neurriak har daitezten. Euskal Herrian, adibidez, hor dago Mugimendu feministak proposatutako "mahai teknikoa", edo Eskubide Sozialen Kartak egungo lehenetsun sozialak aldarrikatuz kaleratutako dokumentua. Estatu espainiarrean, baserritar txikien ekoizpenaren aldeko idatzia dago, bertoko nekazaritza eta azoken defentsan, eta atxikimendu asko lortzen ari den "Larrialdi Sozialerako Plana" ere eratu da. Ongi etorria guztiei.

**Begirada luzeagoa ere bai.** Urgentziazko neurri horiek, berehala hartu beharrekoak dira. Hala ere, osasun larrialdia ostean bere gordintasun osoan azaleratuko den krisi ekosozialari modu egokian erantzuteko, begirada luzeagoko neurriak proposatu beharko ditugu, bestela betikook eta betiko eran ordainduko dugu krisi horren faktura. Garaia da, adibidez, 2030. urtera begira hartu nahi dugun norabideari buruzko hausnarketa egiteko, eta herri proiektu alternatibo bat irudikatzen saiatzeko. Ahalegin taktikoa eta estrategikoa bateratuz, koherentziaz uztar ditzakegu urgentziazko eta begirada luzeagoko neurriak. Neoliberalismoaren oinarri-oinarrian dauden hainbat mito eta gezur ageri-agerian geratu dira, eta horrek aukera ematen digu defendatzen dugun eredu alternatiboa, kementsu gizarteratzen ahalegintzeko. Baina horretarako, inoiz baino beharrezkoagoa da, gure konfinamendutik bada ere, ikuspuntu eta esperientzia ezberdinetatik norabide aldaketa sakon horren alde ari garenon arteko lankidetzeta eta elkar trukatzeta indartzea. Eta, agian, horren emaitza eta gerorako tresna egokia izan daiteke, arestian aipatutako "Bizitzaren aldeko sarea" (edo antzeko zerbait). Pertsonen eta ekosistemen bizitzaren aldeko sarea, hau da, pertsona guztientzako bizitza duina bermatzen duen eta naturaren orekak eta oinarritzko zikloak errespetatzen dituen gizarte justua eta iraunkorraren aldekoa.

**Ekosozialismo-Feministaren bidetik.** Gure ustez, funtsezkoa da azpimarratzea krisiaren dimentsio ekosoziala eta aldarrikatzea alternatiba etorriko dela hainbat begiradaren sintesitik. Horrela, bide egokia iruditzen zaigu Euskal Gune Ekosozialistak planteatzen dituen "lau begiradak" (sindikala, ekologista, feminista eta autogestioarena) ardatz bakar batean uztartzea. Hona hemen, pentsatzeko eta ekiteko proposatzen ditugun oinarritzko irizpide batzuk.

- 1) Oinarritzko beharrianak (osasuna, hezkuntza, elikadura, zaintza, energia, ura, etxebizitza, hondakinen kudeaketa...) ziurtatzeko zerbitzu publikoak lehenetsi eta indartu. Are gehiago, hasteko, orain arteko murrizketa guztiak lehengoratu beharko lirateke, baina beharrezko nazionalizazio-sozializazioak aldarrikatzen hasi behar gara. Sozializazioak lehenetsi behar dira, oinarritzko zerbitzu horiek komunitateen eskuetan utzi ahal izateko (ez soilik Estatuaren eskuetan): adibidez, Osasun-materialari dagokiona edo energia deszentralizatuko komunitateen kasuan... Modu horretan, zerbitzu horiek ondasun komun bezala kudeatu daitezke.
- 2) Neurriak, epeak eta aurrekontua ezarri, zaintzarako zerbitzu kolektiboen sare unibertsala, duina eta doakoa eraikitzeko, mendekotasun edo zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen eskatzen duten arreta bermatu ahal izateko. Hau da, zaintzan hazi eta kontsumo materialean gutxitu.
- 3) Trantsizio ekosoziala bultzatu, hasteko energetikoa eta 2030 urteari begira planifikatu beharrekoa: energia eta materialen produkzio eta kontsumoa murrizteko neurriak hartu, oinarritzko beharrianak betetzeko funtsezkoak diren sektoreak sustatu (agroekologia, zaintza,

osasuna ...); tokiko ekoizpena eta kontsumoa lehenetsi; sektore kutsagarrienak eta bizitzarako erasokorrenak birmoldatu (armak, automobilak...) eta trantsizio horri erantzuna emango dion hezkuntza-sistema ezartzea.

- 4) Aberastasunaren eta lanaren (produktiboa eta erreproduktiboa) banaketari bidea eman: planteatuko diren kaleratzeen kontra neurri fiskalak hartu, eta lana banatu. Horri guztiari lotuta zenbait debate garrantzitsu egitea komeni da; hala nola, "jabego pribatuak izan beharko lituzkeen muge" edota "oinarrizko errenta unibertsalaren" ingurukoak.
- 5) Herritarron ahalduntzea ahalbidetu, besteak beste, hezkuntza-prozesu ekosozialen bidez. Komunitateen eta enpresetako langileen parte hartzea eta erabakitzeke ahalmena sustatu; ekimen autogestionatuak eta ekonomia sozial eta solidarioa babestu eta indartu. Konfinamendu garai honetan, garrantzizkoa da, adibidez, Euskal Herrian sortzen ari diren elkartasunezko ekimen komunitarioak, ahal dugun neurrian, laguntzea, babestea eta zabaltzea.

Labur bilduz, **zaindu** (zaintzen sarea), **babestu** (oinarrizko zerbitzu publikoak), **murriztu** (bizitza duinerako beharrezkoa dena baino ez ekoiztu, kontsumitu...), **banatu** (aberastasuna eta lana) eta **indartu** (herritarron ahalduntzea). Horiek dira euskal ekosozialismo-feministaren oinarriak eta aldarriak.

**2020/04/05**

EUSKAL GUNE EKOSOZIALISTA

**Itxaso Apraiz, Ritxi Hernandez Abaitua eta Tomi Etxeandia**